Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

# ORDAINKETA ZATIKATUAK ESTATUKO EDO NAFARROAKO ARAUDIAREN PEAN DAUDEN ENTITATEENTZAT

**Araudia:** Ekonomia ituna onetsi zuen 12/2002 Legearen 17.2 artikulua.

**Aurkezteko epeak:**

Hurrenez hurren, lurralde erkideko eta Nafarroako araudian ezarritako epe eta aldietan aitortu behar da.

**Kuotak zehaztea:**

Ordaindu beharreko kuotaren kalkulua ere, aplikatzekoa den araudi egokia aplikatuz egingo da.

Ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten entitateek, zergaren azken likidazio-aitorpenean zehaztutako proportzioa aplikatuko dute. Hala ere, beste proportzio bat aplikatu ahal izango dute 12/2002 Legearen 17.2 artikuluan eta 37/2013 Foru Arauaren 130.6 artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Ordaintzeko kuotarik ateratzen ez bada, aitorpen nulua aurkeztuko da beti.

**Aurkezpena: telematikoa**

**202** eredua (banakako araubidean) eta **222** eredua (zerga baterakuntzako araubidean), online bete eta nahitaez telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Aurkezteko prozedura: www.araba.eus - Egoitza elektronikora sartzea - Banakako aitorpenen aurkezpena - Online izapidetzea - Ziurtagiri digitalaz identifikatzea - Sortzea eta bidaltzea - Aitorpenak sortzea eta bidaltzea - Eredua (202 edo 222), urtea eta epealdia (lehenengo, bigarren edo hirugarren ordainketa zatikatua) aukeratzea - Eredua sortzea - Eredua betetzea eta bidaltzea.

**Laguntza zerbitzua:**

203 eta 223 ereduen aurkezpen telematikoaz zalantzarik baduzu, dei egin dezakezu Egoitza Elektronikoko Laguntza Zerbitzura:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 902 100 513
- Posta elektronikoa: diputaciondigital@araba.eus

Zerga arloko edozein zalantzatarako, gure Zerga Argibideetarako Zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 18 15 55
- Posta elektronikoa: consultasfiscales@araba.eus